

# INSTALAZIOAREN ERABILERA KO BALDINTZA OROKORRAK:

- 1- Kiroldegira abonatu nahi duenak, abonoa egiteko aurkeztu beharrekoa:
  - N.A.N fotokopia. Adin ttikikoetan familia liburuaren fotokopia.
  - Kontu Korronte zenbakiaren fotokopia, ordainketak bankuz eginen direlako. (Hilabeteko eta udako abonoen kasuan kiroldegian bertan eskuz edo txartelarekin eginen da ordainketa.)
  - Izen emate fitxa bete
- 2- Hasierako sarreraren ordainketa derrigorrezkoa da urteko eta neguko abonoetan, eta ordainketa honek betirako balio du, abonatuak abonoaren jarraipena gauzatzen duen bitartean. Baja ematen bada, ondoren berriro abonatu ahal izateko hasierako sarrera hau berriz ere ordaindu beharko da.
- 3- Urteko eta neguko abonatua, kontratatutako hilabete guztien ordainketa egitera behartuta dago. Urteko bonoan 12 hilabeteko konpromezuarekin guttienez, eta neguko bonoan denboraldi osokoarekin. (iraila-ekaina)
- 4- Urteko eta neguko abonoak automatikoki berritzen dira. Ez bada jarraitu nahi, baja eman beharko da norberaren bono bukaera baino 15 egun lehenago. Ez bada epe hau betetzen, datorren hilabeteko kuota ordaindu beharko du.
- 5- Abonatu batek baja eman nahi badu edo ez badu bonoa berri nahi, harreraren eskuragarri dagoen baja inprimakia bete eta sinatu beharko du nahi ta nahi ez. Horrelakorik bete arte ez zaio inori bajarik onartuko.
- 6- Erabiltzailea konprometitzen da, momentu guztian Kiroldegiko zuzendaritzak ezartzen duen barne araudia errespetatzera. Barne araudi hau, bulegoan, eta iragarki taulan izanen da nahi duenaren eskura.
- 7- Abonatu baten erreziboa itzultzen badu inongo arrazoirik gabe, %10eko errekaragoa aplikatuko zaio kuota hau harreraren bertan ordaintzerako orduan.
- 8- Abonatu karnetaren galera edo lapurketa gertatzen bada, Kiroldegiaren bulegoan erran beharko da. Karnet berri bat egiteak, 8,91 € ko kostua izanen du interesatuarentzat.
- 9- Abonatu karneta norbanakoa eta aldaezina da. Bertze pertsonak egin dezaketen erabilera okerra, zigortzeko arrazoa izanen da.
- 10- Urte natural batean, 2 aldiz aldatu daiteke aukeratutako 1.zerbitzua.

\* Konforme nagoela adierazteko dokumentu hau sinatzen dut, Lesakan, \_\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ an.

Abonatuaren sinadura:

\* Abonatua adin ttikikoa den kasuetan, zera aitortzen dut: guztiz konsziente garena instalazioko jabe den Lesakako Udala eta hau kudeatzen duen OILARTEGI enpresa edozein erresponsabilitate zibilengandik kanpo geldituko dela, baldin eta errepresentatzen dugun adin ttikikoak egin ditzakeen erabilera txarragatik ezbeharririk sortzen den.

Nik, \_\_\_\_\_ Andre/jaunak ordezkaturia, Adin nagusikoa eta \_\_\_\_\_ NAN zbkia duena.

Adin ttikiko abonatuaren ordezkariaren sinadura:

*OILARTEGI S.L.U-k, trataeraren arduradun bezala, zure datuak honako helburuarekin eskuratu dituela informatu nahi dizu: administrazio, kontabilitate eta zergen kudeaketan, merkataritza harreman eta transakzio ekonomikoen kudeaketan, sarreraren kontrolean, sarrerak eta irteerak, marketing ekintzetan eta plazen adjudikaziorako zozketetan parte hartzea non izenak web orrian eta instalazioan argitaratuak izan daitezkeen. Trataerarako oinarri juridikoa kontratu baten exekuzioan datza. Aurreikusitako helburuarekin bat egiteko, zure datuak honako hauek helarazi diezaikegu: zergadun administrazioari: banketxeak, aurrezki kutzak eta rural kutzak; materialen kontzeptzia duen administrazio publikoari. Edozein pertsonak bere sarbidea, zuzenketa, ezabapena, trataeraren limitazioa, bere datu pertsonalen oposizio edo eskuratzearen eskubidea eskatzeko eskubidea dauka gure bulegoko helbidera idatziz, zein eskubide erabili nahi den adieraziz. Informazio osagarria gure web orrian aurkitu dezakezu.*